

**ERRONKARIBARKO BATZORDE  
NAGUSIAK 2025EKO  
GARAGARZAROAREN 26AN EGINDAKO  
EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA**

2025eko garagarzaroaren 26ko 18:00etan, Erronkariko Batzar-etxean, Erronkaribarko Batzorde Nagusiak ezohiko osoko bilkura egin du, Asier Gil Artuch idazkaria izanik eta José Javier Echandi Sarries Gardeko Aiza bulguko zinegotzia Batzordeburu dela, bera Gardeko ordezkari gisa agertuz.

Gainerako hirien izenean ordezkari hauek bertaratu dira:

UZTARROZE: Belen Marko Indurain.

IZABA: Carlos Anaut Abadía eta Pedro Pilart Martin

URZAINKI: Tomás Urzainqui Mina eta Juan Carlos Urzainqui Salvoch

ERRONKARI: Amparo Viñuales Gale eta Patricia Viscarret Goñi

BIDANKOZE: Tomás Pasquel Ayechu.

BURGI: Ez dago.

Batzordeburuak bilkura hasi eta gainerendari jarraiturik honako erabaki hauek hartu dira:

**1. BATZORDEBURUAREN  
EBAZPENEN BERRI EMATEA**

**07/25 Ebazpena, 2025eko aprilaren 2koa**, zenbait erakunde sindikalek 2025eko aprilaren 9ko deitutako greba dela eta eman beharreko gutxieneko zerbitzuak ezartzen dituen. Funtsezko zerbitzuak betetzen direla bermatzeko, greba

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA  
DE LA JUNTA GENERAL DEL VALLE DE  
RONCAL CELEBRADA EL DÍA 26 DE  
JUNIO DE 2025**

En la villa de Roncal y Casa del Valle, siendo las 18:00 horas del día 26 de JUNIO de dos mil veinticinco, con asistencia del Secretario D. Asier Gil Artuch y bajo la Presidencia del Sr. Concejal de la Villa de Garde D. José Javier Echandi Sarriés, que concurre representando a esta villa, se reúne la Junta General del Valle de Roncal, en sesión extraordinaria, concurriendo por las demás villas la representación siguiente:

Por UZTARROZ: Belen Marko Indurain

Por ISABA: Carlos Anaut Abadía, Pedro Pilart Martin.

Por URZAINQUI: Tomás Urzainqui, Juan Carlos Urzainqui Salvoch

Por RONCAL: Amparo Viñuales Galé, Patricia Viscarret Goñi

Por VIDANGOZ: Tomás Pasquel Ayechu

Por BURGUI: No acude.

Abierta la sesión por el Sr. Presidente y siguiendo el orden del día, fueron adoptados los siguientes acuerdos:

**1º.- RESOLUCIONES PRESIDENCIA.**

**Se da cuenta de la Resolución 7/2025, de Presidencia, de 2 de abril de 2025**, por la que se establecen los servicios mínimos con motivo de la huelga convocada para el día 9 de abril de 2025 por diversas organizaciones sindicales. En ella se fija que, con el fin de garantizar el mantenimiento de los servicios esenciales, deberán mantenerse operativos los siguientes servicios durante la jornada de huelga:

egunean honako zerbitzu hauek eman beharko dira:

- Bulego Nagusietan, langile bat herritarrei arreta emateko.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan, bi familia-langile Etxez etxeko laguntza zerbitzurako.
- Haur Eskolan, hezitzaile bat.

Era berean, xedatu da ebazpena zerbitzuetako arduradunei eta sindikatu etako ordezkariak jakinaraztea, argitaratzea eta Batzorde Nagusia osatzen duten udalei bidaltzea, erabiltzaileek horren berri izan dezaten.

**8/2025 Ebazpena, 2025eko apirilaren 2koa,** Excavaciones del Salazar SL enpresari Erronkaribarko pistetan eroritako zuhaitzak kentzeko lanak esleitu dizkiona, 14.500 euroan (BEZa barne).

Esleipena zenbateko txikiko kontratuetarako aurreikusitako prozeduraren bidez egin da, sektoreko hainbat enpresa gonbidatuta. Eskaintza bakarra jaso da. Lanak 2025eko apirilaren lehen astean hasiko dira.

**9/2025 Ebazpena, 2025eko apirilaren 3koa,** Luis Enrique Hualde Tapiari 150 euro itzultzea erabaki duena, Erronkaribarko pistetan ibiltzeko tasa bidegabe kobratzeagatik.

Interesdunak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, kobrantza bidegabea izan zela baieztatu da. Era berean, xedatu da itzulketa hori indarrean den araudiaren arabera izapidetzea eta interesdunari jakinaraztea.

- En las Oficinas Generales, una persona para la atención ciudadana.
- En el Servicio Social de Base, dos trabajadoras familiares para el Servicio de Atención a Domicilio.
- En la Escuela Infantil, una persona del equipo educativo.

Asimismo, se dispone la comunicación de la resolución a los responsables de los servicios y representantes sindicales, su publicación y su remisión a los ayuntamientos integrantes de la Junta General para su conocimiento por parte de los usuarios.

**Se da cuenta de la Resolución 8/2025, de Presidencia, de 2 de abril de 2025,** por la que se adjudican, mediante el procedimiento previsto para contratos de menor cuantía, los trabajos de retirada de arbolado caído en las pistas del Valle de Roncal a la empresa Excavaciones del Salazar S.L., por un importe de 14.500,00 € IVA incluido. La adjudicación se realiza tras la invitación a varias empresas del sector y la recepción de una única oferta. Los trabajos darán comienzo en la primera semana de abril de 2025.

**Se da cuenta de la Resolución 9/2025, de Presidencia, de 3 de abril de 2025,** por la que se acuerda la devolución de 150 euros a D. Luis Enrique Hualde Tapia, cantidad indebidamente abonada en concepto de tasa por autorización de circulación por las pistas del Valle de Roncal. Se reconoce que el cobro fue improcedente tras la revisión de la documentación aportada por el interesado. Asimismo, se dispone la tramitación de dicha devolución conforme a la normativa aplicable y se notifica al interesado.

**10/2025 Ebazpena, 2025eko aprilaren 8koa,** Muga Trail lasterketaren antolatzaileari Lakora eta Ori arteko bidea (Erronkaribarko mugartea) erabiltzeko baimena eman diona, parte-hartzaileak igaro ahal izan daitezzen.

Baimena baldintza hauen pean eman da: ingurumena zaintzea, probaren ondoren ingurunea garbitzea eta leheneratzea bermatzea eta indarrean dagoen araudia betetzea, administrazio eskudunen beharrezko beste baimen batzuk alde batera utzi gabe.

**11-14/2025 Ebazpenak, 2025eko aprilaren 8koak,** ondokoei Erronkaribarko pistetan ibiltzeko 2020 eta 2024 bitarteko tasak baliogabetzea erabaki duena, ez erabiltzeagatik: David Baines Pilart eta haren ezkontide María Jesús Mandacén Elizalde, Construcciones Balmi S.L., Nieves Marco Glaría eta Jesús Arbea Marraco. Era berean, baja eman zaie baimendutako ibilgailuen erroldan 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera.

Interesdunei gogorarazi zaie edozein baja edo aldaketa jakinarazi behar dutela hori gertatu den hiruhileko naturalaren barruan, Erronkaribarko Mankomunitateko pistak eta bide publikoak mantendu, kontserbatu eta hobetzeko tasa eta erabilera arautzen duen ordenantzaren 6.e) artikuluekin bat, zerga-egoera erregularizatuta mantentzeko. Interesdunei ebazpenaren berri emanen zaie.

**15/25 Ebazpena, 2025eko aprilaren 10ekoa,** Grupo Goyo enpresari Erronkaribarko sarbideetan 7 informazio-

**Se da cuenta de la Resolución 10/2025, de Presidencia, de 8 de abril de 2025,** por la que se autoriza a la organización de la carrera Muga Trail el uso del camino comprendido entre Lakora y Ori, dentro del término del Valle de Roncal, para el paso de los participantes durante el evento. La autorización se otorga con la condición de respetar el medio ambiente, garantizar la limpieza y restauración del entorno tras la prueba, y cumplir con la normativa vigente, sin perjuicio de otras autorizaciones necesarias de administraciones competentes.

**Se da cuenta de las Resoluciones 11 a 14/2025, de Presidencia, de 8 de abril de 2025,** por las cuales se acuerda la anulación de las tasas pendientes correspondientes a los ejercicios 2020 a 2024 por no haberse utilizado las pistas del Valle de Roncal, a favor de D. David Baines Pilart y su cónyuge Dña. María Jesús Mandacén Elizalde, Construcciones Balmi S.L., Dña. Nieves Marco Glaría y D. Jesús Arbea Marraco; además, se procede a la baja en el censo de vehículos autorizados a partir del 1 de enero de 2025. Se recuerda a los interesados la obligación de comunicar cualquier baja o modificación dentro del trimestre natural en que se produzca, conforme al artículo 6.e) de la Ordenanza Reguladora del Uso y de la Tasa por Mantenimiento, Conservación y Mejora de las Pistas y Caminos Públicos de la Mancomunidad del Valle de Roncal, para mantener su situación tributaria regularizada. Estas resoluciones serán notificadas a los interesados.

**Se da cuenta de la Resolución 15/25, de Presidencia, de 10 de abril de 2025,** por la cual se adjudican, mediante el régimen especial para contratos de menor

kartel instalatzeko lanak, indusketa eta zimenduak barne, esleitu dizkiona, 5.671,00 euroan (BEZik gabe).

Esleipena zenbateko txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez egin da, aurkeztutako eskaintzak aztertu eta kalitate-prezio erlazio onena kontuan hartu ondoren. Batzorde Nagusiari ebazpenaren berri emanen zaio hurrengo osoko bilkuran.

**16/2025 Ebazpena, 2025eko aprilaren 16koa,** Asier Gil Artuch, Erronkaribarko Batzorde Nagusiko idazkaria, Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateko behin-behineko idazkari izendatzeko baimena eman duena, plaza aldi baterako betetzeko, gehenez ere sei hilabetez, salbu eta izendapena baliogabetu edo lanpostua behin betiko betetzen bada. Ebazpena interesdunari eta Mankomunitateari jakinaraziko zaie.

**17/2025 Ebazpena, 2025eko aprilaren 24koa,** Excavaciones Arviza SLri (La Cruz kalea 10, Larraga) "2025eko basojarduketan proiektua" hasiera batean esleitu diona, 106.889,54 euroan (BEZik gabe), haren eskaintzak kalitatea-prezioa erlazio onena izategatik, onartutako baldintzen agirian ezarritako irizpide tekniko eta ekonomikoen arabera.

Esleipenaren eraginkortasuna etenda geratuko da jakinarazpena egin eta hamar egun naturaleko epean, eta enpresari eskatu zaio dokumentazioa aurkezteko eta zenbatekoaren % 4ko bermea jartzeko kontratua formalizatu aurretik.

cuantía, los trabajos de instalación de 7 carteles informativos en las entradas por carretera al Valle de Roncal, incluyendo excavación y cimentación, a la empresa Grupo Goyo, por un importe de 5.671,00 euros (IVA excluido), tras analizar las ofertas presentadas y considerar la mejor relación calidad-precio. Se dará cuenta de esta resolución a la Junta General del Valle de Roncal en la primera sesión que se celebre.

**Se da cuenta de la Resolución 16/2025, de Presidencia, de 16 de abril de 2025,** por la que se autoriza la designación de D. Asier Gil Artuch, Secretario de la Junta del Valle de Roncal, como Secretario accidental de la Mancomunidad de Residuos Sólidos Urbanos Irati, para cubrir temporalmente la plaza por un máximo de seis meses, salvo revocación o provisión definitiva. Se notificará la resolución al interesado y a la Mancomunidad.

**Se da cuenta de la Resolución 17/2025, de Presidencia, de 24 de abril de 2025,** por la que se adjudica inicialmente el "Proyecto de Actuaciones Forestales 2025" a Excavaciones Arviza S.L., con domicilio en Calle La Cruz 10, Larraga, por un importe de 106.889,54 euros (IVA excluido), al resultar su oferta la mejor valorada en relación calidad-precio conforme a los criterios técnicos y económicos establecidos en el pliego aprobado. Se informa que la eficacia de la adjudicación queda suspendida durante diez días naturales desde la notificación, y se requiere a la empresa aportar la documentación y constituir una garantía del 4% antes de formalizar el contrato. Se informa que el contrato ya se ha firmado y que la adjudicataria ya está realizando los trabajos. Se pregunta por la representación de Urzainqui por la oferta

Jakinarazi da kontratua sinatu dela eta esleipenduna lanak egiten ari dela.

Urzainkiko ordezkariak eskaintza ekonomikoari buruz galdetu du, ez baitago jasota ebazpenaren testuan. Idazkariak jakinarazi du eskaintza 97.500 eurokoa izan dela (BEZik gabe).

**18/2025 Ebazpena, 2025eko maiatzaren 6koa,** Miren Saldías Sáez gizarte hezitzaileari borondatezko eszedentzia, lanpostua gordeta, ukatua, aplikatu beharreko hitzarmenaren arabera lan-kontratudun finkoa ez izategatik.

Jakinarazi da eszedentzia eman dakiokeela lanpostua gorde gabe, betiere zerbitzuaren beharren arabera.

Bestalde, lanpostua lan-eskaintza publikoaren eta hauta-proben bidez erregelamenduz betetzeko izapideak hasteko eskatu da, argi utzita lanpostuaren mugagabe ez-finko izaerari buruzko edozein erreklamazio lan-arloko jurisdikzioari dagokiola. Batzorde Nagusiari ebazpenaren berri emanen zaio hurrengo osoko bilkuran.

**19/2025 Ebazpena, 2025eko maiatzaren 15koa,** Erronkaribarko talde, elkarte eta kolektiboek kultura, kirol, hezkuntza, turismo, osasun, aisia eta gizarte arloetako jarduerak egiteko laguntza deialdia egin duena.

Eskabideak hilabeteko epean aurkeztu beharko dira; eskabide-ereduak eskuragarri daude webgune ofizialean eta idazkaritzan, dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren arabera. Bandoa

económica presentada ya que no viene reflejada en el texto de la resolución. Se informa por parte del secretario que la oferta es de 97.500 IVA excluido.

**Se da cuenta de la Resolución 18/2025, de Presidencia, de 6 de mayo de 2025,** por la que se deniega la solicitud de excedencia voluntaria con reserva de puesto presentada por Dña. Miren Saldías Sáez, Educadora Social, al no ser personal laboral fijo según el convenio aplicable. Se informa sobre la posibilidad de conceder una excedencia sin reserva de puesto, condicionada a las necesidades del servicio. Además, se insta a iniciar los trámites para la provisión reglamentaria del puesto mediante oferta pública de empleo y convocatoria selectiva, dejando claro que cualquier reclamación sobre condición indefinida no fija corresponde a la jurisdicción social. Se dará cuenta a la Junta General del Valle de Roncal en su próxima sesión.

**Se da cuenta de la Resolución 19/2025, de Presidencia, de 15 de mayo de 2025,** por la que se convoca el procedimiento para la concesión de ayudas a agrupaciones, asociaciones y colectivos del Valle de Roncal para la realización de actividades culturales, deportivas, educativas, turísticas, sanitarias, de ocio y de servicios sociales. Se establece un plazo de un mes para la presentación de solicitudes, que deberán presentarse mediante los anexos normalizados disponibles en la página web oficial y en la Casa del Valle, ajustándose a la Ordenanza Reguladora de Subvenciones. Se ordena la publicación del bando correspondiente para su conocimiento general.

argitaratzeko agindu da, jende orok horren berri izan dezan.

**20/2025 Ebazpena, 2025eko maiatzaren 16koa,** Amaia Larumbe Torrano Gizarte Zerbitzuko administrari laguntzaileari urtebetez lanaldiaren % 50eko murrizketa eman diona, 27/2011 Foru Dekretuarekin eta aplikatu beharreko araudiarekin bat. Lanaldiaren gainerako % 50a Marina Tapia Garderi eskaini zaio, murrizketa-aldian Izaban lan eginen duena.

**21/2025 Ebazpena, 2025eko maiatzaren 16koa,** Virginia Atanes Galechi urtebetez borondatezko eszedentzia eman diona, hiru urtetik beherako semea zaintzeko, Langileen Estatutuaren 46.3 artikuluekin bat.

Eszedentzia 2025eko garagarzaroaren 18tik 2026ko garagarzaroaren 17ra arte izanen da eta aldi horretan lanpostua gordeko zaio, indarrean dagoen legearekin bat.

**22/2025 Ebazpena, 2025eko maiatzaren 20koa,** Izaskun Martinez Alkati, José Luis Martinez Zuleten ordezkari gisa, Erronkaribarko pistetan ibiltzeko 2020 eta 2023 bitarteko tasak baliogabetzea erabaki duena, erabili ez zirela egiaztatu baita.

Interesdunari baja eman zaio baimendutako ibilgailuen erroldan 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta gogorarazi zaio edozein baja edo aldaketa jakinarazi behar zuela Ordenantzak ezarritako epeetan.

**Se da cuenta de la Resolución 20/2025, de Presidencia, de 16 de mayo de 2025,** por la que se concede a Dña. Amaia Larumbe Torrano la reducción del 50% de su jornada laboral como Auxiliar Administrativa en Roncal Social, por un plazo de un año, conforme al Decreto Foral 27/2011 y a la normativa aplicable. Asimismo, se ofrece el 50% restante de la jornada a Dña. Marina Tapia Garde, quien realizará sus labores en Isaba durante el periodo de reducción.

**Se da cuenta de la Resolución 21/2025, de Presidencia, de 16 de mayo de 2025,** por la que se concede a Dña. Virginia Atanes Galech una excedencia voluntaria por cuidado de hijo menor de tres años, conforme al artículo 46.3 del Estatuto de los Trabajadores, por un periodo de un año, desde el 18 de junio de 2025 hasta el 17 de junio de 2026, manteniéndose durante este tiempo la reserva de su puesto de trabajo conforme a la ley.

**Se da cuenta de la Resolución 22/2025, de Presidencia, de 20 de mayo de 2025,** por la que, a solicitud de Dña. Izaskun Martinez Alkat en representación de D. José Luis Martinez Zulet, se acuerda la anulación de las tasas por autorización de circulación en las pistas del Valle de Roncal correspondientes a los ejercicios 2020 a 2023, al constatar que no se hizo uso de las mismas, y se procede a la baja del interesado en el censo de vehículos autorizados desde el 1 de enero de 2020, recordándole la obligación de comunicar cualquier baja o modificación en los plazos establecidos por la Ordenanza Reguladora del Uso y de la Tasa.

**23/2025 Ebazpena, 2025eko maiatzaren 23koa,** Miren Saldias Sáez gizarte hezitzaileari interes partikularragatik borondatezko eszedentzia, lanpostua gordeta, eman diona, aurreko ebazpena baliogabetuz.

Eszedentzia 18 hilabeteko izanen da, 2025eko garagarzaroaren 1etik hasita. Europar Batasuneko zuzenbidearen araberrako interpretazioa aitortu da, langile finkoen eta aldi baterakoeren arteko diskriminazioa saihesteko; dena den, horrek ez du esan nahi lan-definiziorik ezaren aitortpen judiziala denik.

Lanpostua arauz betetzeko izapideak hasteko eskatu da, eta baimendu da eszedentziak irauten duen bitartean lanpostua aldi baterako betetzeko kontratazioa egitea.

**24/2025 Ebazpena, 2025eko maiatzaren 30koa,** Rios Renovables SLUri "Bagomaltako eraikin publikoan energia berriztagarria hornitzeko instalazioa" proiektua esleitu diona, 23.384,70 euroan (BEZik gabe).

Esleipenaren eraginkortasuna etenda geratuko da jakinarazpena egin eta hamar egun naturaleko epean, eta enpresari eskatu zaio dokumentazioa aurkezteko eta zenbatekoaren % 4ko bermea jartzeko kontratua formalizatu aurretik.

Jakinarazi da kontratua sinatu dela eta memoria teknikoa idatzi duen arkitektoa eta enpresa harremanetan daudela lanak koordinatzeko eta hasteko.

**25/2025 Ebazpena, 2025eko garagarzaroaren 12koa,** Erronkaribarko

**Se da cuenta de la Resolución 23/2025 de 23 de mayo de 2025** concediendo a Dña. Miren Saldias Sáez la excedencia voluntaria por interés particular con reserva del puesto de trabajo desde el 1 de junio de 2025 y durante 18 meses, revocando la denegación anterior. Se reconoce una interpretación conforme al Derecho de la Unión Europea para evitar discriminación entre personal fijo y temporal, aunque no supone reconocimiento judicial de indefinición laboral. Se insta a iniciar los trámites para la provisión reglamentaria del puesto y se autoriza la contratación temporal para cubrir la plaza durante la excedencia.

**Se da cuenta de la Resolución 24/2025 de 30 de mayo de 2025** adjudicando el proyecto "instalación de suministro de energía renovable en el edificio público de mata de haya" a Rios Renovables s.l.u, por un importe de 23.384,70 euros (IVA excluido), siendo esta la única oferta presentada. Se informa que la eficacia de la adjudicación queda suspendida por diez días naturales desde la notificación, y se requiere a la empresa aportar la documentación exigida y depositar una garantía del 4% del importe antes de formalizar el contrato. Se informa que el contrato ya ha sido firmado y que el arquitecto redactor de la memoria técnica y la empresa ya están en contacto para coordinar e iniciar los trabajos.

**Se da cuenta de la Resolución 25/2025 de 12 de junio de 2025** Se aprueba el calendario del Centro de Primer Ciclo de Educación Infantil del Valle de Roncal para el curso 2025-2026, con jornada completa y 208 días de apertura. El centro atenderá directamente a niños y niñas durante 204

Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko ikastetxearen 2025-2026 ikasturteko egutegia onetsi duena.

Ikastetxea jardunaldi osokoa da eta zabalik egonen da 208 egunez: 204 egun hurrei arreta zuzena emateko, eta 4 egun antolaketarako (2025eko setemeraren 1ean, 2an eta 3an eta 2026ko garilaren 22an). Itxita egonen da agorrilean, Eguberritan, inauterietan, aste santuan, asteburuetan, jaiegunetan eta 2026ko maiatzaren 25ean, Batzordeak eta Udalek erabakitako tokiko jaiegunean.

**26/2025 Ebazpena, 2025eko garagarzaroaren 13koa,** 2025eko garagarzaroaren 28an Ernaizeko etxola erabiltzeko baimena eman duena, Ahuna Triatloiko parte-hartzaileak hartzeko.

Baimena baldintza hauen pean eman da: giltzak garilaren 4a baino lehen itzultzea eta etxola zegoen baldintza berberetan uztea. Antolatzailea izanen da erabileran sortutako edozein kalteren erantzulea. Eskatu da ekitaldiaren publizitatean Erronkaribarko Batzorde Nagusiaren logoa sartzeko.

## 2. SANTA BARBARAKO ASKETAN SAI ARREAK EZ SARTZEKO NEURRIAK HARTZEKO ESKAERA

Mikel Galetx Garciak aurkeztutako eskaera irakurri da, sai arreek Santa Barbaran eragindako arazoaren berri ematen duena.

Azaldu duenez, saiek aziendarentzako askak erabili ohi dituzte bainatzeko eta edateko, eta, ondorioz,

días, con días de organización sin atención infantil los días 1, 2 y 3 de septiembre de 2025 y 22 de julio de 2026. El centro permanecerá cerrado en agosto, durante las vacaciones de Navidad, Carnaval, Semana Santa, fines de semana, festivos y el día 25 de mayo de 2026 señalado por la Junta y los Ayuntamientos

**Se da cuenta de la Resolución 26/2025 de 13 de junio de 2025** donde se autoriza el uso de la caseta de Ernaiz para la recepción de participantes del Ahuna Triatlón el 28 de junio de 2025, con la condición de que las llaves se devuelvan antes del 4 de julio y que la caseta quede en las mismas condiciones en que fue entregada. La organización será responsable de cualquier daño ocasionado durante el uso. Además, se solicita que en los agradecimientos del evento se incluya el logo de la Junta General del Valle de Roncal-Erronkaribarko Batzorde Nagusia.

## 2º.-SOLICITUD PARA QUE SE TOMEN MEDIDAS PARA EVITAR QUE LOS BUITRES ENTREN EN LAS ASKAS EN SANTA BARBARA.

En relación con la solicitud presentada por D. Mikel Galetx Garcia, en la que expone la problemática ocasionada por la presencia de buitres en la zona de Santa Bárbara, quienes utilizan las askas destinadas al ganado para bañarse y beber, dejándolas en condiciones insalubres — llenas de plumas, excrementos, pulgas y piojos, lo que las hace inservibles para su uso habitual—, el Presidente informa que ha acompañado personalmente al ganadero al lugar señalado y ha podido comprobar in situ lo expuesto en el escrito.

baldintza osasungaitzetan uzten dituzte — lumaz, gorotzez, arkakusoz eta zorritz beteta, eta ezin dira erabili ohiko erabilerarako—. Batzordeburuak jakinarazi du abeltzainarekin batera aipatutako tokira joan dela eta in situ egiaztatu ahal izan duela idazkian azaldutakoa.

Egoera aztertu ondoren, asketan zuloz estalki bat jartzea planteatu da, azienda ura edan ahal izateko eta sai arreak sartzea eragozteko. Estalkia erraz kentzeko modukoa izan behar du, garbiketa- eta mantentze-lanak egin ahal izateko.

### 3. HITZARMENA ARTALDE ELKARTEAREKIN

Aurkeztutako justifikazio-memoria eta hitzarmen-proposamena irakurri ondoren, Erronkaribarko Batzorde Nagusiak aho batez erabaki du Artalde elkartearekin lankidetzaren hitzarmena sinatzea, elkarte horrek sustatutako Artzain Eskolaren proiektuari jarraipena emateko.

Hitzarmenaren bidez, Artalde elkarteak konpromisoa hartu du proiekturako beharrezkoak diren ekipo informatikoen, altzarien eta bulego-materialaren erosketa kudeatzeko.

Batzorde Nagusiak erosketa horretan lagunduko du 1.4100.4820001 "Artzaintza-eskola" aurrekontu-partidaren kontura: 2025eko ekitaldirako 10.000 euro. Horrela, Batzordeak, material hori ordaintzen laguntzeaz gain, Artalde elkartearekin lankidetzaren proiektua gauzatzea erraztuko du.

Tras valorar la situación, se plantea como posible solución la instalación de una tapa en las askas, con perforaciones de tamaño suficiente para permitir el acceso del ganado al agua, pero que impidan la entrada de los buitres. Esta tapa deberá ser fácilmente desmontable para permitir labores de limpieza y mantenimiento.

### 3º.- CONVENIO CON LA ASOCIACIÓN ARTALDE ELKARTEA.

Leída la memoria justificativa y la propuesta de convenio presentada, se acuerda aprobar la firma del convenio de colaboración entre la Junta General del Valle de Roncal y la asociación Artalde Elkartea, con el objeto de dar continuidad al proyecto de la Escuela de Pastoreo / Artzain Eskola, dinamizado por dicha asociación.

Mediante la firma de este convenio, la asociación Artalde Elkartea se compromete a gestionar la adquisición de equipos informáticos, mobiliario y material de oficina necesarios para el proyecto. La Junta General del Valle de Roncal colaborará en esta compra mediante la asignación de fondos específicos provenientes de la partida presupuestaria 1.4100.4820001, denominada "Escuela de pastoreo", que cuenta con un presupuesto de 10.000 euros para el ejercicio 2025. De este modo, la Junta contribuye económicamente a sufragar el coste de estos materiales, facilitando la ejecución del proyecto en colaboración con Artalde Elkartea

### 4º.- DECLARACIÓN DE SEGOVIA.

#### 4. SEGOVIAKO ADIERAZPENA

Batzordeburuak Toki Erakunde Historikoen Bigarren Topaketaren berri eman du. Topaketa hori Segovian egin zen, 2025eko maiatzaren 9an eta 10ean, Segoviako Hiri eta Lurreko Komunitateak antolatuta eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren dirulaguntza baten bidez finantzatuta. Ekitaldia 2024ko apirilean Sorian egindako lehen topaketaren jarraipena izan zen.

Helburu nagusia Toki Erakunde Historikoen Sarea sortzen aurrera egitea izan zen, herri-ondasunak batera kudeatzeko eta arazo komunak konpontzeko. Horretarako, hainbat hitzaldi eta jarduera egin ziren, esperientziak trukatzeko eta erakunde parte-hartzaileen arteko harremanak indartzeko.

Topaketa horren ondorioz, "Segoviako Adierazpena" aurkeztu zen. Dokumentu horretan erakundeek lankidetzan jarraitzeko duten konpromisoa jasotzen da. Gainera, adierazpenak komunikatzeko eta informazioa trukatzeko gune birtual bat sortzea planteatzen du, bai eta erakunde historikoen arteko lankidetzaren sustatzeko beste ekimen batzuk ere. Erakundeek adierazpen hori sinatzeko gonbita egin zitzaion, lankidetzaren sare horrekin aurrera jarraitzeko interesa formalizatzeko.

Batzorde Nagusiak aho batez erabaki du adierazpen hori sinatzea, erakundeak bertan jasotako helburu eta printzipioekin duen konpromisoaren erakusgarri, bai eta herri-ondarea eta bere nortasun historikoa

Se informa por parte del Presidente acerca del Segundo Encuentro de Entidades Locales Históricas se celebró en Segovia los días 9 y 10 de mayo de 2025, organizado por la Comunidad de la Ciudad y Tierra de Segovia y financiado mediante una subvención del Ministerio de Transición Ecológica y Reto Demográfico. Este evento dio continuidad al primer encuentro realizado en Soria en abril de 2024.

El principal objetivo fue avanzar en la creación de una Red de Entidades Locales Históricas dedicada a la gestión conjunta de bienes comunales y a la resolución de problemas comunes. Para ello, se contó con diversas conferencias y actividades que facilitaron el intercambio de experiencias y el fortalecimiento de contactos entre las entidades participantes.

Como resultado de este encuentro se presentó la "Declaración de Segovia", un documento de intenciones que refleja el compromiso de las entidades por continuar colaborando. Además, la declaración plantea la creación de un espacio virtual para la comunicación e intercambio de información, así como otras iniciativas para potenciar la cooperación entre las entidades históricas. Se invitó a las entidades a firmar dicha declaración para formalizar su interés en seguir adelante con esta red colaborativa.

Se acuerda por unanimidad de los presentes la firma de dicha Declaración, como muestra del compromiso de esta Entidad con los objetivos y principios en ella recogidos, y su voluntad de seguir colaborando en actuaciones relacionadas con la defensa y valorización del patrimonio comunal y de su identidad histórica.

defendatzearekin eta balioan jartzearekin lotutako jardueretan laguntzen jarraitzeko duen borondatearen erakusgarri ere.

## 5. ERRONKARIBARKO BATZORDE NAGUSIKO BATZORDEBURUA ALDATZEA

José Javier Echandi Sarriések Erronkaribarko Batzordeburu kargua hartu zuenetik bi urte igaro direla-eta, Batzordeburu eta Batzordeburuorde karguak berritu behar dira. Kargu hori bere gain hartu zuen indarrean zegoen ordenantzaren arabera, ezartzen zuena Batzordeburu kargua hirien artean txandaka bete behar zela, bi urteko alditan.

Batzorde Nagusiaren antolaketaarako erregelamenduaren 8. artikulua berriaren arabera, Batzordeburutzak eta Batzordeburuordetzak lau urteko iraupena izanen dute, udal-legealdiarekin bat. Borondatezko hautagaitzarik aurkezten ez bada, zazpi hirien arteko txandakatzesistema aplikatu behar da, ezarritako hurrenkerari jarrikiz: Bidankoze, Uztarroze, Urzainki, Garde, Erronkari, Burgi eta Izaba.

Hortaz, Erronkariri dagokio batzordeburutza izatea, eta Amparo Viñuales Gale izendatu du.

Udal-hauteskunderik egon ez denez, agintaldia hauteskunde-zikloarekin lotzeko (8. artikulua), erabaki da Erronkarik orain hartuko duen batzordeburutzaren iraunaldia hurrengo udal-hauteskundeak egin artekoa izanen dela. Une horretan, Batzordeko ordezkariak berrituko dira eta

## 5º.- CAMBIO DE PRESIDENCIA DE LA JUNTA GENERAL DEL VALLE DE RONCAL.

Transcurridos dos años desde la toma de posesión de D. José Javier Echandi Sarriés como Presidente de la Junta General del Valle de Roncal, cargo que asumió conforme a la redacción de la anterior ordenanza —que establecía una Presidencia rotativa entre Villas por periodos de dos años—, se procede a la renovación de los cargos de Presidencia y Vicepresidencia de la Junta.

De conformidad con el nuevo artículo 8.º del Reglamento de Organización de la Junta General, que establece que la Presidencia y Vicepresidencia tendrán una duración de cuatro años, coincidiendo con la legislatura municipal, y al no haberse presentado ninguna candidatura voluntaria, se aplica el sistema de rotación entre las siete Villas, en el orden establecido: Vidángoz, Uztárroz, Urzainqui, Garde, Roncal, Burgui e Izaba.

En aplicación de dicho sistema, corresponde a la Villa de Roncal ostentar la Presidencia, y esta designa como Presidenta de la Junta General del Valle de Roncal a Dña. Amparo Viñuales Gale.

No obstante, dado que no ha habido elecciones municipales en esta ocasión, y en coherencia con el artículo 8.º que vincula el periodo presidencial al ciclo electoral, se acuerda que la Presidencia ahora asumida por la Villa de Roncal se mantendrá hasta que se celebren las próximas elecciones municipales, momento en el que se renovarán los representantes de la Junta y se designarán los nuevos cargos para el siguiente periodo.

La Vicepresidencia corresponde, según el orden de rotación, a la Villa de

kargu berriak izendatuko dira hurrengo aldirako.

Txandakatze-hurrenkeraren arabera, batzordeburuordetza Burgiri dagokio. Hurrengo osoko bilkuran kargu hori nork beteko duen jakinaraziko du.

José Javier Echandik eskerrak eman dizkie batzordekide guztiei bi urte hauetan egindako lanagatik, eta adierazi du prest dagoela egungo Batzordeburuari mahai gainean dauden gai guztien berri emateko.

Amparo Viñuales Galek esan du kargua erantzukizunez onartzen duela, eta aktan honako hau jasotzea nahi du: "Aurreko Batzordeburuak hasitako jarduerekin jarraituko dut, legegintzaldiaren bigarren erdian baikaude.

Irailean Batzordearen lan-saio bat egingen da, abian dauden jarduerak eta balizko beste jarduera batzuk mahai gainean jartzeko eta legealdiko azken bi urteetan gure energiak non jarriko ditugun lehenesteko.

Halaber, balioan jarri nahi dut bigarren aldiz emakume bat Batzordeburua izatea, gizarte berdinzaleago bateranzko aldaketa bultzatzeko oso beharrezkoa baita emakumeok erakundeetako ardura-karguak betetzea."

Gai-zerrendatik kanpo eta presakotzat jo ondoren, honako gai hauek aztertzea erabaki da:

Tomás Urzainquik azaldu du aurten Hiru Behien Zergaren 650. urteurrena dela, Erronkaribarrek eta Baretous ibarrak

Burgui, que comunicara quien ostentará dicho cargo la próxima sesión que se celebre.

Se agradece por parte de D. José Javier Echandi a cada una de las representaciones el trabajo realizado durante estos dos años en el que ha sido Presidente. Así mismo muestra su disposición para trasladar a la actual Presidenta los asuntos que están en estos momentos encima de la mesa.

Dña. Amparo Viñuales Gale dice aceptar el cargo con responsabilidad y quiere que conste en acta lo siguiente: "Continuar con las actuaciones ya comenzadas por la anterior presidencia ya que entramos a mitad de legislatura.

En septiembre se realizará una sesión de trabajo con toda la junta para poner encima de la mesa lo que ya está en marcha otras posibles actuaciones y priorizar donde se van a poner nuestras energías en estos dos últimos años de legislatura.

También poner el valor ser la segunda mujer presidenta en esta Junta ya que es muy necesario que las mujeres ocupemos puestos de responsabilidad en las instituciones para ir propiciando el cambio hacia una sociedad más igualitaria."

Fuera del Orden del día y previa declaración de urgencia se acuerda tratar los siguientes asuntos:

Tomás Urzainqui presentó un texto explicando que, aprovechando el 650 aniversario del tratado firmado en 1375 conocido como el Tributo de las Tres Vacas, el histórico tratado de paz entre el Valle de Roncal y el Valle de Baretous se propone

1375ean sinatutako bake-itun historikoa, eta proposatu du izapideak hastea UNESCOk Gizateriaren Mundu Ondare gisa aitortzeko.

Azpimarratu du itun hori elkarbizitza baketsuaren lekukotza bikaina eta bizia dela, eta balio historiko, kultural eta turistiko handia duela nazioartean. Esan duenez, aitorten hori lortzeko prozesua luzea da, bi urte ingurukoa, eta nazioarteko batzorde batek ebaluatu behar du.

Azalpenaren ondoren, Batzordeak aho batez erabaki du izapideak egiten hastea Hiru Behien Zerga Estatuko Zerrenda Adierazgarrian sartzeko, Munduko Ondarearen Zerrendan izena eman ahal izateko lehen urratsa; hori dena etorkizuneko belaunaldientzat ondare hori babestu eta sustatzeko eta haren eragin turistiko eta kulturala indartzeko.

Tomás Pasquel Ayechuk Ansó eta Echo ibarrekin batera prestatutako idazkiaren zirriborroa irakurri du, hartzaren presentziak sortutako egoerari aurre egiteko hainbat neurri-proposamen biltzen dituen.

Jakinarazi da garilaren 3an, 18:00etan, bilera egingen dela Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuarekin, gai hori eta Erronkaribarko abeltzaintzarekin lotutako beste batzuk aztertzeko.

Bestalde, Tomás Pasquel Ayechuk jakinarazi du artalde transhumanteak iristean aurreko urteko egoera bera gertatu

iniciar los trámites para su reconocimiento como Patrimonio Mundial de la Humanidad por la UNESCO.

Se destacó que este tratado, es un testimonio excepcional y vivo de convivencia pacífica, con gran valor histórico, cultural y turístico a nivel internacional. Tomás Urzainqui explicó que el proceso para lograr esta distinción es largo, de aproximadamente dos años, y será evaluado por una comisión internacional.

Tras la exposición, la Junta acordó, por unanimidad, iniciar los trámites para incluir el Tributo de las Tres Vacas en la Lista Indicativa del Estado, primer paso formal hacia su posible inscripción en la Lista del Patrimonio Mundial, con el fin de proteger y promocionar este legado para las futuras generaciones y fortalecer su impacto turístico y cultural.

Se lee por D. Tomás Pasquel Ayechu borrador de escrito preparado junto con los valles de Ansó y Hecho con diferentes propuestas de medidas para hacer frente a la situación generada por la presencia del oso en dichos valles. Se informa así mismo que habrá reunión el día 3 de julio a las 18:00 con el Departamento de Desarrollo Rural y Medio Ambiente del Gobierno de Navarra para tratar estos temas y otros relacionados con la ganadería en el Valle de Roncal.

Por otro lado, informa también D. Tomás Pasquel Ayechu que, con la llegada del ganado trashumante, vuelve a repetirse la misma situación que el año anterior, la cual motivó la elaboración de un informe técnico encargado a José Miguel Iturri Busto. Dicho informe concluía que el paso del ganado ovino por la pista provocaba

dela, José Miguel Iturri Bustori txosten tekniko bat enkargatzea ekarri zuena.

Txosten horren arabera, ardi-azienda pistan ibiltzeak kalte nabarmenak eragiten ditu haren egoeran. Tomás Pasquelen ustez, irtenbidea erraza da: eragotzi beharko litzateke pistetan azienda luzeran ibiltzea, eta, horren orde, artaldeek toki zehatzetatik zeharkatzea proposatu, pisten higadura gutxitzeko.

Batzordekideek inpaktu hori gutxitzeko hainbat aukera baloratu dituzte. Tomás Pasquelek konpromisoa hartu du José Miguel Iturri Bustoren txosten teknikoa eremua erabili ohi duten 3 artzainei emateko, egoeraren berri izan dezaten.

Azkenik, jakinarazi da San Migel mendateko abereentzako hesia oso egoera txarrean dagoela; izan ere, zaborra, plastikoa eta beste hondakin asko pilatuta daude. Gogorarazi da hesia instalatu zenean eremua egoera onean mantentzea baldintza gisa ezarri zela.

Hori dela eta, arduradunei eskatuko zaie horiek garbitu eta egokitzeko, inguruneak baldintza duinak eta abeltzaintza-erabilerarekin bateragarriak berreskuratu ditzan.

## 6. GALDE-ESKEAK

Tomás Urzainquik galdetu du ea Berroetako pistan egin beharreko jarduketei buruzko memoriarik edo proiekturik dagoen. Oraingo ez dagoela erantzun zaio.

daños significativos en su estado. A juicio de Tomás Pasquel, la solución es sencilla: se trataría de evitar el tránsito longitudinal del ganado por la pista, proponiendo en su lugar que los rebaños la atraviesen transversalmente en puntos concretos, minimizando así el desgaste a lo largo de tantos metros. Durante la sesión, los representantes valoran diferentes alternativas para mitigar este impacto. Asimismo, Tomás Pasquel se compromete a entregar el informe técnico elaborado por José Miguel Iturri Busto a los tres ganaderos de ovino que utilizan habitualmente la zona para que sean concededores de la situación.

Por último se informa que la barrera ganadera situada en el Portillo de San Miguel se encuentra en muy malas condiciones, con abundante acumulación de basura, plásticos y otros residuos. Se recuerda que, en el momento de su instalación, se estableció como condición que el espacio debía mantenerse en buen estado. Por tanto, se acordará instar formalmente a los responsables para que procedan a su limpieza y adecuación, de modo que el entorno recupere unas condiciones dignas y compatibles con el uso ganadero.

## 6º.- RUEGOS Y PREGUNTAS

Se pregunta por Tomás Urzainqui si hay memoria o proyecto acerca de las posibles actuaciones a realizar en la pista de Berroeta. Se le contesta que no hay nada por ahora.

Tomás Pasquel traslada a la Junta General del Valle un debate que se está produciendo actualmente en el seno de la

Tomás Pasquelek Eska-Zaraitzu Mankomunitatean eta hura osatzen duten udaletan ematen ari den eztabaidaren berri eman du, Mankomunitatearen estatutuak aldatzeko aukerari buruzkoa, besteak beste, etorkizunean mankomunitateak zerbitzu berriak hartu eta emateko aukera izateko.

Bere kezka agertu du aukera horrek herritarrei eta, bereziki, Batzorde Nagusiko langileei ekar diezazkiekeen kalteengatik. Horregatik, aukera hori ahalbidetuko lukeen klausula zehatz hori sartzea geldiarazteko eskatu du, eta, norabide horretan edozein urrats egin aurretik, herritarrei eta zuzenean ukitu ditzaken zerbitzuei kontsulta egiteko.

Uztarrozeko, Erronkariko eta Urzainkiko ordezkariak argitu dute estatutuen aldaketaren helburua aukera irekita uztea baino ez dela, eta horrek ez duela esan nahi zerbitzu berriak sartzeari buruzko erabakirik hartu behar denik. Adierazi dutenez, etorkizunean zerbitzu jakin bat bere gain hartzea baloratuko balitz, orduan haren egokitasuna, ezartzeko modua eta eragina aztertuko lirateke, eta dagozkion prozedurekin erabakiko litzateke. Azpimarratu dute aukera hori estatutuetan sartu nahi dela etorkizunean Mankomunitateak zerbitzu berriren bat sartzea komeni dela ikusiko balu berriz ere estatutuak aldatu behar ez izateko.

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 20:30ean Batzordeburuak bilkura amaitu du, honako akta hau idatzi, irakurri eta

Mancomunidad Eska-Salazar y los ayuntamientos que la integran, relativo a la posible modificación de sus estatutos para, entre otras cosas, incluir una previsión que permita, en el futuro, incorporar nuevos servicios a la mancomunidad. Expresa su preocupación por los posibles perjuicios que esta previsión podría acarrear para la población y, especialmente, para la plantilla de la Junta del Valle. Por ello, solicita que se paralice la inclusión de esta cláusula concreta que habilitaría esa posibilidad, y que, antes de dar cualquier paso en esa dirección, se consulte tanto a la población en general como a los servicios que pudieran verse directamente afectados.

Desde los representantes de Uztárroz, Roncal y Urzainqui se aclara que el objetivo de esta modificación es únicamente dejar abierta la opción, sin que ello suponga decisión alguna sobre la incorporación de nuevos servicios. Señalan que, en caso de que en el futuro se valorase añadir algún servicio concreto, se analizaría entonces su conveniencia, el modo de implantación y su impacto, y se decidiría con los procedimientos pertinentes. Se subraya que la inclusión de esta posibilidad en los estatutos se hace exclusivamente para evitar que si en un futuro se ve conveniente incorporar algún nuevo servicio en la Mancomunidad se tenga que realizar nuevamente una modificación de los estatutos.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las veinte horas y treinta minutos del día señalado al inicio, por el Sr. Presidente se levanta la sesión, redactándose la presente Acta que, leída y hallada conforme, es firmada por todos los

ontzat emana, bertaratutakoek sinaturik  
eta neronek, idazkariak, egiaztaturik.”

asistentes, conmigo el Secretario que  
certifico.